

behar da. Gainerakoan, zori-txarrez, hainbat lekukotza isil-pean geratuko dira, eta hainbat hobi komun ere bai, herrietako bazterretan.

Ezagutu zenituen hainbat ezaguni kiku berezia egin diezu kontakizunean.

Bai. Gustatzen zait halakoak egitea; batzuetan ageriago, besteetan ezkutuago. Indio da nerabeetako bat, Tolosako lagun bati egindako keinua, min-biziarekin hil zena; espeleologia zale sutsua. Mendia ere agertzen da, nola ez. Indioren aita, mendizalea, istripu batean hil zen Makalu mendian. Izena Alberto du pertsonaia horrek, eta Alberto Zerain-i egindako aitortza moduko bat da, nire ustez ez baitiogu merezitako aitortzarik egin oraindik euskal mendizaletasunean. Zerain sekulako tipoa zen, mendizale aparta eta pertsona hobe. Pertsonaia horretan, dena den, hainbat mendizale gorpuztu daitezke, eta irakurleak nahieran identifika ditzake. Alberto hori Manu Badiolarekin lotu duenik ere bada.

Zergatik kiku horiek?

Ez nuen Manu Badiola ezagutu, baina bai Amets bere semea eta Marina emaztea, eta arrasto handia utzi zidaten. Ametsek “Mendiminez” libururako kontatu zizkidanak go-goan ditut, eta nahi nuen haiekin ere keinu bat izan. Badiola ere, nolabait, presente dago Indioren aitaren pertsonaian.

Mendia eta heriotza, zure jardunari lotutako bi hitz potolo.

Bai. Muga oso lausoa da. Bizitzan, orokorrean. Gaur hemen zaude eta bihar agian ez. Mendian arriskuaren osagaia badago, baina egunerokoan ere ez gaude erabat salbu. Bizitza-

ren esentzia, bizipenak, indartuagoak dira mendian. Afari baten bizipozak iraungo du afariak irauten duena. Hurrengo egunean ahaztu egingo zaizu, baina mendiko bizipen horiek gehiago betetzen dute eta askoz gehiago irauten dute. Hemen kontua gus-tatzen zaizun horrekin gozatzeta da, tarteka zorigaiztoak gertatzen badira ere. Mendian hil diren guztiak bizitzaren bila ari zirela hil ziren. Ibon Gaztañazpik Julio Villar-en “Eh, Petrel” liburua euskaratu zue-nean, urteak pasa zituen liburu-ko esaldi ezagun bati bueltak: «*Hoy es el primer día del resto de mi vida*». Azkenik, argi-printza etorri eta euskaraz hain ezaguna den esaldiarekin itzuli zuen: «Hil arte bizi». Esaldi horretan laburbiltzen da pentsamoldea: «Hil arte bizi». Bizi, ez iraun, baizik eta bizi, bizitzari zukua atera. Batzuk sagardotegira joanda egingo dute, besteek mendira joanda.

Helduentzako argitalpenen bat egiteko erronkarik bai?

Ez naiz mekanikaria. Izan naiten txapuzaren bat egiteko gaitasuna daukan norbait. Alegia, ez naiz idazlea, baina gustatzen zait tarteka nire sormen ariketak egitea. Errespētu handia sortzen dit helduentzako liburu bat egiteak, baina ez dut baztertzen. Erosoago sentitzen naiz gazteen-tzako idazketan. Helduentzako literatura jorratzeko, daukadana baino literatur oinarri handiagoa behar da, gehiago irakurri, dezente irakurtzen badut ere. Literaturari buruz gehiago jakin, eta horrek errespetua ematen dit. Ez dut baztertzen ipuin liburu-ren bat argitaratzea egunen batean, baina ur handiak dira.

Satira zigortu

Xabier Mikel
ERREKONDO

Satira izan da herritarren tresna beren nahieran erabiltzen dituzten politikariei ironiaz eta umoretsu protestak zuzentzeko, toki-ko jaietan nagusiki. Satira da Peñek San Fermin jaietan darabilten adierazpen moldeak Iruñean eta Nafarroan urtean zehar gertatuak kritikatzeko, 9 egunetan txarangak bultzatuta dantzan kalez kale astintzen dutena.

Satira da guztiei irekia eta abegikorra dela aldarrikatzen duen agintariari moxorroa erantzeko modu sotil bat, nahiz herrikideen kritikak ikuspegi komiko edo sarkastiko batetik egin.

Harropuzkeria inoiz ez da ongi ezkondu satirarekin. Satirak eskatzen du guxtienez jomuga duen politikariaren (horiek dira gehienetan) maila pertsonal minimo bat. Kontrara, politikarien eskakeriek beti dituzte nahasten satira egileak bide penalekin, eskarmentu-zigorak bilatuz.

Satira ez da gauza berria. Atzera mendeetan erabili izan da kultura ezberdinetan, egun nola Euskal Herrian zein beste herrialdetan.

Zentsurak dira Cadizko Chirigotak jas-
an izan dituenak, dela 1966ko prentsa eta inprentaren legea (“Fraga”) baliatuta eta poliziari eta Koroari zuzendutako hitzak ezabatuta, dela RTVAk (Andaluziako EITB) Falla Konkurtso entzutetsua Andaluzia osoan emititu beharrean, ohikoa dena, Cadizera mugatu zueneko, satira batzuetan sona handia izan zuen Andaluziako presidente Juan Morenoren soldata igoera kritikatzeko zelako.

Zentsura da Lizarrako UPNko gobernuak jaietan ohiko txosna eremua debekatu izanari Raimundo el Canastero herriko musika taldeak ironiaz eta umorez egin protesta-abestia hilketa mehatxuegatik salatzea.

Satira, baina, artea izateaz gain, ausardia ere bada, eta agian agintari eskas eta harroputzen zigorpean irautea du bere patua.

Jarrai dezala satirak! •